# GORABIDE

Nº 308 Zk.
2022EKO EKAINA
JUNIO DE 2022

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Datuak eguneratzea**
**Actualización de datos**
pg. 4 or.



**Astialdiko programa berriak**
**Nuevos programas de tiempo libre**
pg. 6 or.



**Batzarraren emaitza**
**Resultado de la asamblea**
pg. 7 or.

# Gernikako Batzar Etxean ospatu genuen gure 60. urteurrena

# Celebramos nuestro 60 aniversario en la Casa de Juntas de Gernika





## “Oso pozik nago Gorabideko bazkidea izateaz” [5. or.]

## “Estoy muy contenta de ser socia de Gorabide” [pg. 5]

JUNIO DE 2022 | Nº 308 Zk | 2022EKO EKAINA GORABIDE

# Las Juntas Generales de Bizkaia nos homenajean por nuestro 60 aniversario

## La presidenta del Parlamento foral recibió en la Casa de Juntas de Gernika a representantes de nuestra asociación

Las Juntas Generales de Bizkaia rindieron homenaje en la Casa de Juntas de Gernika a todas las familias, personas usuarias, profesionales y voluntariado de Gorabide con motivo de nuestro 60 aniversario. La presidenta del Parlamento foral, Ana Otadui, condujo un acto de reconocimiento, al que asistió un nutrido grupo encabezado por nuestra presidenta, Susana Gorbeña, e Itxaso Hormaza en representación de las personas con discapacidad intelectual.

“Es un honor recibiros en la casa de todos y todas las vizcaínas, porque queremos que este sea un reconocimiento de toda Bizkaia”, aseguró Ana Otadui. “Las instituciones y la sociedad debemos reconocer el gran trabajo realizado por familias, profesionales y voluntarios de la entidad en esa defensa de los derechos de las personas con discapacidad intelectual”, subrayó.

### Florecer en sociedad

Nuestra presidenta puso en valor a quienes ponen “su granito de arena –montaña de arena, más bien–” para contribuir a nuestros fines. Y destacó “tanto el esfuerzo, la calidad y la calidez de cada profesional como la implicación de las personas voluntarias”. “Como nuestro Árbol de Gernika, aspiramos, no sólo a sobrevivir, sino a crecer y prosperar... a florecer en sociedad”, finalizó.

“Las personas con discapacidad intelectual sólo necesitamos apoyos para ser iguales que el resto de las personas”, dijo Itxaso Hormaza, que añadió: “En ese camino, vamos de la mano las personas con discapacidad intelectual, nuestras familias, profesionales, voluntariado y las entidades como estas Juntas Generales de Bizkaia. Así, vamos a conseguir que la sociedad sea mucho mejor”.

### Visita guiada

El acto incluyó una visita, guiada por la presidenta de las Juntas Generales, a tesoros como el viejo Árbol de Gernika, el nuevo, la Sala de la Vidriera o el Salón de Plenos. Finalmente, nuestra presidenta, acompañada por Mariángeles Rebouras y César Castañeda, en representación de las personas con discapacidad intelectual, firmó en el Libro de Honor de la institución foral, y recibió una reproducción del cuadro ‘El besamanos’, de manos de la presidenta Otadui.

Hemos celebrado nuestro 60 aniversario, en las Juntas Generales de Bizkaia. Su presidenta reconoció nuestro trabajo. Nuestra presidenta puso en valor lo que hacen profesionales y voluntariado. Y una persona con discapacidad intelectual animó a mejorar la sociedad.









**Los Ayuntamientos de Barakaldo, Erandio y Abadiño también se han sumado a la celebración de nuestro 60 aniversario, con emotivas recepciones institucionales.**

**Barakaldo, Erandio eta Abadiñoko Udalek ere bat egin dute gure 60. urteurrenarekin, eta harrera instituzional hunkigarriak egin dituzte.**

# Bizkaiko Batzar Nagusiek omenaldia egin digute gure 60. urteurrenarengatik

## Foru Legebiltzarreko presidenteak Gernikako Batzar Etxean hartu zituen gure elkarteko ordezkariak

Bizkaiko Batzar Nagusiek omenaldia egin zieten Gorabideko familia, erabiltzaile, profesional eta boluntario guztiei Gernikako Batzar Etxean, gure 60. urteurrenaren harira. Ana Otadui, Foru legebiltzarreko presidenteak gidatu zuen aitortza-ekitaldia eta bertan izan zen gure elkarteko talde handi bat, Susana Gorbeña presidentearekin eta Itxaso Hormazarekin, adimen desgaitasuna duten pertsonen ordezkaritzan.

“Ohorea da bizkaitar guztion etxean zuek hartzea, Bizkaia osoaren aitortza izatea nahi baitugu”, azaldu zuen Ana Otaduik. “Elkarte honetako familiek, profesionalek eta boluntarioek adimen desgaitasuna duten pertsonen eskubideen defentsan egiten duzuen lan handia aitortu behar dugu erakundeok eta gizarteak”, nabarmendu zuen.

### Gizartean loratu

Gure elkarrteko presidenteak gure helburuei ekarpena egiteko “hondar aletxoa –hondar-mendia, hobe esanda–” jartzen duten pertsonen balioa azpimarratu zuen. Eta nabarmen zituen “profesional bakoitzaren ahalegina, kalitatea eta berotasuna, bai eta boluntarioen inplikazioa ere”. “Gure Gernikako arbolaren modura, biziirautea ez ezik, hazi eta garatzea da gure helburua... gizartean loratzea”, amaitu zuen.

“Adimen desgaitasuna dugun pertsonok gainerako pertsonen berdinak izateko laguntza behar dugu soilik”, esan zuen Itxaso Hormazak, eta gehitu: “Bide horretan, adimen desgaitasuna duten pertsonen, familien, profesionalen, boluntarioen eta Batzar Nagusien moduko erakundeen eskutik goaz”. Horrela, gizartea askoz hobea izan dadin lortuko dugu”.

### Bisita gidatua

Ekitaldian, Gernikako Arbola zaharra, berria, Beirateen Aretoa edo Bilkuren Aretoa moduko altxorrak bisitatu ziren, Batzar Nagusietako presidentearen eskutik. Azkenik, gure presidenteak, Mariángeles Rebouras eta César Castañeda adimen desgaitasuna duten pertsonen ordezkariekin batera, foru erakundeko Ohorezko Liburua sinatu zuen eta ‘Eskumuinak’ koadroaren erreprodukzioa jaso zuen.

Gure 60. urteurrena Bizkaiko Batzar Nagusietan ospatu dugu. Presidenteak gure lana aitortu zuen. Gure presidenteak langile eta boluntarioen lanaren balioa azpimarratu zuen. Adimen desgaitasuna duen pertsona batek gizartea hobetzera animatu zituen.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# MUY IMPORTANTE: Actualización de datos

En el servicio BBK SAIOA GORABIDE, manejamos una serie de datos que son fundamentales para una orientación precisa en cada uno de los casos que atendemos, y para un trabajo que va más allá de la atención individualizada y que tiene que ver con el ámbito asociativo que implica a la totalidad de las personas con discapacidad intelectual, al entorno, a los recursos, servicios, legislación específica, etc.

Para ello, es muy importante que podamos tener actualizados todos los datos de cada una de las personas registradas en Gorabide en relación a:

- Grado de discapacidad y diagnóstico.
- Grado de dependencia.
- Sentencia sobre la figura de protección legal.

En muchos casos, tenemos registrados datos que son antiguos y que, a pesar de que se han realizado nuevas valoraciones, no hemos recibido esa documentación actualizada.

Como ejemplo, tenemos registrados diagnósticos con nomenclatura obsoleta, tal como “oligofrenia”, “retraso mental”, etc; también diagnósticos que tienen que ver dificultades intelectuales, pero que pueden no ajustarse a requisitos para acceder a recursos; valoraciones de dependencia con fecha de revisión ya pasada y sin actualizar; así como personas que tienen asignada una figura de protección legal y no nos consta.

Por eso, os pedimos que aquellas personas que tengáis **documentación reciente** en relación a lo anterior nos hagáis llegar una copia por correo electrónico a aministracionsaioa@gorabide.com o por correo postal escribiendo a
BBK SAIOA GORABIDE
Goietxa bidea nº 18
48150 Sondika

# OSO GARRANTZITSUA: Datuen eguneraketa

BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuan, arreta ematen dugun kasu bakoitzean orientazio zehatza emateko funtsezkoak diren datu batzuk erabiltzen ditugu, bai eta norbanakoen arretatik harago doan lan baterako ere, eta adimen desgaitasuna duten pertsona guztiak, ingurunea, baliabideak, zerbitzuak, legeria espezifikoa eta abar inplikatzen dituen elkarte-eremuarekin du zerikusia.

Horretarako, oso garrantzitsua da Gorabiden erregistratuta dauden pertsona guztien datuak eguneratuta izatea:

- Desgaitasun maila eta diagnostikoa.
- Mendekotasun maila.
- Legezko babesaren figuraren inguruko epaia.

Kasu askotan, zaharrak diren datuak erregistratuta ditugu erregistratuta eta, balorazio berriak egin ditugun arren, ez dugu dokumentazio eguneraturik jaso.

Esaterako, zaharkitutako nomenklaturak dituzten diagnostikoak ditugu, hala nola “oligofrenia”, “buruko atzerapena”, etab; bai eta adimen zailtasunak izan arren baliabideetara sartzeko baldintzetara egokitzen ez diren diagnostikoak ere; berrikusteko eguna iraungita eta eguneratu gabea duten mendekotasunen balorazioak; eta legezko babeserako figurarik ez duten pertsonak eta hori erregistratu gabe dutenak ere.

Horregatik, aurrekoaren inguruko **dokumentazio berria** duzuen pertsonei kopia bat bidaltzeko eskatzen dizuegu, posta elektronikoz administracionsaioa@gorabide.com helbidera edo posta arruntez, helbide honetara idatzita: BBK SAIOA GORABIDE
Goietxa bidea, 18
48150 Sondika

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# “Oso pozik nago bazkidea izateaz”

## Vicenta Zahínos 1973tik da bazkide eta ezagutzen ditu bazkide eta erabiltzaile baino zertxobait gehiago izatearen abantailak

2019tik, 176 bazkide gehiago izatea lortu dugu Gorabiden, gure Bazkide Balioaren Planari esker. Zifra handitzearekin batera, gure elkartearen garrantziak bat egiten du gure erabiltzaileen kopuruarekin. Gero eta pertsona gehiagok erabakitzen dute gure elkartearen parte izatea, gure zerbitzuak erabiltzetik harago. Vicenta Zahínos bezala, 1973tik bazkidea.

“Nire amak bazkide egin ninduen duela urte asko, 9 urte nituela” gogoratu du. “Oso pozik nago Gorabideko bazkidea izateaz. Arazorik baldin badut, Margak (bere gizarte-langilea) konpontzen ditu. Eta, gainera, gutxiago ordaintzen dut (neguko eta udako aisialdiko jardueretan, laguntza espezializatuetan, ziurtagirietan...).

**Kate bat**

“Babestuta sentitzen da”, dio Mari Carmen bere koinatak. “Denek ezagutzen dute eta maitasun handiz tratatzen dute. Bazkide izango ez balitz, gauzak ez ziratekeen hain errazak izango”, erantsi du. “Bazkide izateak abantaila du”, aipatu du Antonio anaiak. “Jendea bazkide egitera animatzen dut. Kate ona da, bat joan eta beste bat etortzen da. Eta datozenak bazkide egiten ez badira, elkartea desagertu egingo litzateke. Eta hau ezin dugu galdu”.

Badira erregistratuta baino ez dauden familiak eta bazkide direla uste dutenak. Horregatik, gure Bazkide Balioaren Planeko arduradunek erreferentziazko gizarte-langilearekin egiaztatzera animatzen dituzte.



# “Estoy muy contenta de ser socia de Gorabide”

## Vicenta Zahínos, socia desde 1973, sabe las ventajas que tiene asociarse y ser algo más que una usuaria

Desde el año 2019, hemos logrado incrementar en 176 el número de personas que son socias de Gorabide, gracias a nuestro Plan Valor Socio. Al aumentar esa cifra, hacemos que nuestra relevancia asociativa se corresponda con el volumen de personas usuarias. Cada vez son más quienes deciden formar parte de nuestra asociación, más allá de utilizar nuestros servicios, como Vicenta Zahínos, que es socia desde 1973.

“Mi madre me hizo socia hace muchos años, cuando tenía 9 años”, recuerda. “Estoy muy contenta de ser socia de Gorabide. Si hay algún problema, me lo soluciona Marga (su trabajadora social). Y así, además, pago menos (en actividades de tiempo libre de invierno y verano, apoyos especializados, certificados...).

“Se siente protegida”, asegura su cuñada Mari Carmen. “La conocen todas y la tratan con mucho cariño. Si no hubiera sido socia, las cosas no habrían sido tan fáciles”, añade.

**Una cadena**

“Si eres socio, tiene una ventaja”, coincide su hermano Antonio. “Yo animo a la gente a que se haga socia. Esto es una cadena, que uno va y otro viene. Y si los que van entrando no se hacen socios, terminaría por desaparecer la asociación. Y es algo que no podemos perder”.

Dado que hay familias que creen que son socias, pero sólo están registradas en Gorabide, las personas responsables de nuestro Plan Valor Socio animan a comprobarlo con la trabajadora social de referencia.

# Nuevos programas de ocio y tiempo libre

## Gaztegune, Ludoteka, Hogeitako y baloncesto son las novedosas actividades que hemos puesto en marcha para infancia, adolescencia y juventud

En este curso 2021-2022, además de recuperar la mayor parte de la actividad de ocio prepandemia, hemos puesto en marcha varios programas nuevos, especialmente dirigidos a los colectivos de infancia, adolescencia y juventud.

**Gaztegune** es un programa en el que jóvenes de 14 a 17 años disfrutan los miércoles en Bilbao de actividades muy potentes como circo, magia o percusión que hacen de cada tarde una divertida aventura.

**Ludoteka** reúne los viernes por la tarde en Bilbao a un grupo de edades comprendidas entre los 9 y los 13 años, que disfruta de actividades deportivas y culturales, y de talleres como globoflexia o pompas, que hacen las delicias de todas las personas que participan.



**Hogeitako** ofrece tardes muy divertidas, en compañía de amigos y amigas, a tres kuadrillas en Bilbao y Barakaldo, en las que jóvenes que rondan los 20 años organizan sus actividades de ocio y las disfrutan con el apoyo de personas voluntarias.

### Equipo de baloncesto

Y el deporte también ha tenido su lugar dentro de las actividades novedosas del curso, ya que hemos creado un equipo de baloncesto.

Todos los viernes por la tarde, los **Lehoiak Gorabide** entrenan y disfrutan de este deporte, además de participar los fines de semana en la recién creada Liga Bizkaina de Baloncesto Adaptado.

# Aisialdiko eta astialdiko programa berriak

## Gaztegune, Ludoteka, Hogeitako eta saskibaloia dira haur, nerabe eta gazteentzat abian jarri ditugun jarduera berriak

2021-2022 ikasturtean, pandemia aurreko aisialdi-jarduera ia guztiak berreskuratzeaz gain, hainbat programa berri jarri ditugu abian, batez ere haur, nerabe eta gazteei zuzenduta.

**Gaztegune** programan 14 eta 17 urte bitarteko gazteek jarduera oso indartsuak egiten dituzten asteazkenetan Bilbon, hala nola zirkua, magia edo perkusioa, eta arratsalde bakoitza abentura dibertigarria izan ohi da.

**Ludoteka** ostiral arratsaldetan izaten da Bilbon eta 9 eta 13 urte bitarteko haurrak biltzen ditu, kirol eta kultur jarduerak eta tailerrak egiteko, esaterako, globoflexia edo ponpak, parte hartzen duten pertsona guztien gozamenerako.

**Hogeitako**k arratsalde oso dibertigarriak eskaintzen dizkie Bilbo eta Barakaldoko hiru koadrilari. 20 urte inguruko gazteek haien aisialdirako jarduerak antolatzen dituzte eta gozatzeko aukera izaten dute boluntarioen laguntzarekin.

### Saskibaloiko taldea

Kirolak ere badu bere tokia ikasturteko jarduera berrien artean, saskibaloiko taldea sortu baitugu. Ostiral arratsaldero, Lehoiak Gorabide taldeak entrenamenduak izaten ditu eta asteburuetan sortu berri den Bizkaiko Egokitutako Saskibaloi Ligan parte hartzen du.



# Batzarrak 2021eko eta 2022rako kudeaketa eta planak onartu ditu

Gorabideko bazkideek aurreko ekitaldiko kudeaketa berretsi zuten batzarrean: planen % 94 egin ziren edo jarri ziren martxan eta aurreikusitako helburuen % 60,7 lortu zen. 2021eko ekitaldiko aurrekontua ere onartu zuten; aurreikusitako defizita 1.329.117,02tik 703.571,59 eurora jaistea lortu genuen. Covidarengatik egindako gastu gehigarriengatik ez balitz, itxieran aurrekontua orekatzetik hurbil egongo litzateke.

Era berean, urte honetarako Kudeaketa Plana onartu zuten; 697.001 euroko defizita eta 81 euroko kuota ezarri da 2022rako. Gainera, zuzendaritza batzordea berritzea onartu zuten eta, ez ohiko batzarrean, zuzendaritza batzordeari eman zioten Dalmacio Compadre Compadre eta Amelia Fernández Lima eta Carlos Teodoro Astorquia Villacortaren herentzietatik eratorritako ondasun higiezinak saltzeko ahalmena.

# La Asamblea aprueba la gestión de 2021 y los planes para 2022

Las personas que son socias de Gorabide refrendaron en asamblea la gestión del ejercicio pasado, que se cerró con un 94% de los planes realizados o en curso y alcanzando el 60,7% de los objetivos previstos. También aprobaron la ejecución del presupuesto de 2021, en el que logramos reducir el déficit previsto de 1.329.117,02 a 703.571,59 euros. Un cierre que, si no hubiera sufrido los gastos extra por covid, estaría cerca del equilibrio presupuestario.

Igualmente, dieron su visto bueno al Plan de Gestión para este año, a un presupuesto con un déficit de 697.001 euros y a una cuota de 81 euros para 2022. Además, validaron la renovación de la junta directiva y, en asamblea extraordinaria, facultaron a la junta directiva para la venta de los inmuebles provenientes de las herencias de Dalmacio Compadre Compadre y Amelia Fernández Lima y de Carlos Teodoro Astorquia Villacorta.

## LABURRAK BREVES

### Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin lankidetzan aritzen gara

Bilboko Aisialdirako Baliabideen Zentroko erabiltzaileak lankidetzan aritzen dira Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin paketeak egin eta sailkatzen. Eta gure laguntzarako pisuetan bizi diren pertsona batzuek udaberriko janari-bilketan hartu dute parte.

### Colaboramos con el Banco de Alimentos

Personas usuarias del Centro de Recursos de Ocio de Bilbao colaboran con el Banco de Alimentos de Bizkaia en tareas empaquetado y clasificación.
Y varias personas que viven en nuestros pisos con apoyo han colaborado en la campaña de recogida de primavera.

### Nazioarteko foroa

Gizarteratzeko eta Hezkuntzan Sartzeko Laugarren Nazioarteko Kongresuan hartu dugu parte. 'Gizartea inklusiboa estimulatzeko aldaketak' aurkezpena egin genuen, inklusioa ahalbidetzeko erakundeetako aldaketak sustatzeko tresnen inguruan. Horiek parte hartu genuen Europako Coesi foroan sortu ziren.

### Foro internacional

Hemos participado en el Cuarto Congreso Internacional de Inclusión Social y Educativa CIISE 2022, con la presentación 'Cambios para estimular una sociedad inclusiva', sobre las herramientas para promover cambios organizacionales que favorezcan la inclusión, surgidas en el proyecto europeo Coesi en el que participamos

GORABIDE

JUNIO DE 2022 | Nº 308 Zk | 2022EKO EKAINA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).



**Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Egunean, Sareen Sareak Agenda 2030en inguruan duen jarrera aurkeztu zuen eta Sareen Saria eman zion Juan Cidi, adimen desgaitasunaren inguruko elkarteetan izandako ibilbidearengatik.**

**En la celebración del Día del Tercer Sector Social de Euskadi, Sareen Sarea presentó su posicionamiento sobre la Agenda 2030, y otorgó el Sareen Saria a Juan Cid, por su trayectoria en el movimiento asociativo de la discapacidad intelectual.**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Ekainean, webinarioen garaia itxiko dugu, hilaren 9an, Ahalduntzearen ahotsak magazinarekin, eta beste herrialde batzuekin izango gara harremanetan. 'Mindfulness' aurrez aurreko tailer monografikoa egingo dugu hilaren 1, 8 eta 15ean. Senideen arteko topaketak ere egingo ditugu Erromon eta Basaurin (7an), Barakaldon (14an) eta Bilbon (20an). Gainera, kafeak kide artean izango ditugu anai-arrebekin, koinatuekin, eta pertsona helduen eta gazteen gurasoekin. Eta Erriberatik ibilaldia egingo dugu itsasontzian, Ondo pasa familian gure programaren baitan.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**

Emma Ballús, partaidetza asoziatiboaren arduraduna.
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10.

**PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN**

- Asteazkena 29, 18:00etan, Bilborocken (Lab arteoa).
- Osteguna 30, 18:30ean, Bilborocken (Lab arteoa).

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En junio, cerraremos la temporada de webinarios el día 9, con Las voces del empoderamiento, un magacín en el que conectaremos con otros países. Organizaremos un taller monográfico presencial de 'mindfulness', los días 1, 8 y 15. Realizaremos encuentros de familiares en Romo y Basauri (día 7), Barakaldo (14) y Bilbao (20). Y también tendremos cafés en compañía de los grupos de hermanas, hermanos, cuñadas y cuñados; de madres y padres de personas adultas; y de madres y padres de jóvenes. Y haremos una excursión en barco por la Ría, dentro de nuestro programa Diviértete en familia.

**Más información e inscripciones:**

Emma Ballús, responsable de participación asociativa.
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10.

**PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN**

- Miércoles 29, a las 18:00, en Bilborock (sala Lab).
- Jueves 30, a las 18:30, en Bilborock (sala Lab).

**Kontaktua | Contacto:** Johanna López (johannalopez@gorabide.com) | Tel. 94 443 12 10.

D.L./L.G. BI-394-2014